



132. AKTA

BATZARRALDIA: **KORPORAZIOA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTAKETA**

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

EGUNA: 2019KO EKAINAK 15

HASIERA ORDUA: 11:00

" ZUMAIKO Udaleko Ekitaldi Aretoan, bi mila eta hemeretzi ekainaren hamabostean goizeko hamaikak direnean, ekitaldiaren fede ematen du idazkariak, Gorka Urgoiti Agirre jnak ..

Egun on, ongi etorriak izan zaitezte areto honetara bertaratu zareten guztiok. Hasiera emango diogu pleno berezi honi, gaur hemen 2019-2023 legealdirako Korporazioa eratuko dugu, lehen aldiz 17 zinegotziz osatutako Korporazioa hain zuzen ere.

Hauteskundeen araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 195. artikulua zera dio:

Udal Korporazioak hauteskundeak egin eta hurrengo egunetik 20 egunetara batzarraldi publikoan eratuko dira. Hartara adineko mahaia osatuko da, adinez hautetsi nagusiarekin eta gazteenarekin idazkari lanak beriz udal idazkariak egingo ditu.

Mahaiak hauteskunde batzarrak bidalitako kredentzialak konprobatuko ditu, adineko mahaia Korporazioa eratutzat joko du zinegotzi hautetsien gehiengo osoa batzarraldira bertaratzen bada, kasu honetan bederatzi hautetsi.

Bertaratutako hautetsiak Iñaki Ostolaza Esnal,

M. Arritokieta Iribar Egaña,
Alejandro Oviden Antia,
Maider Alberdi Yeregui,
Asier Arakistain Alberdi,
M. Ignacia Bidasoro Arocena,
Jose María Azkue Castillo,
Maddi Aldalur Osa,
M. Aranzazu Gajate Telleria,
Oier Korta Esnal,
M. Cruz Alvarez Aparicio,
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta,
Cristina Vicente Iciar,
Gotzon Embil Unanue,



Zumaia Udala Iker Mardaras Arrieta,
Ainhoa Illarramendi Azkue,
Arritokieta Marañón Basarte,

2019IAKU0007-A19/4546

Ikusten duzue, Korporazioa osatzen duten zinegotzien legezko gehiengo osoa bertaratu da hona, beraz, aurrera ekingo diogu batzarraldi honi, Lehenik eta behin adineko mahaia osatuko dugu, adinez zinegotzi nagusiarekin Alex Oliden, hain zuzen ere, mahaiaren lehendakaria izango delarik eta gazteenarekin Maider Alberdi eta idazkaria, ni, neu.

Hitza ematen diot Alexi,

ALEX OLIDEN: Adineko mahaia osatuta, kredentzialak konprobatuta daudela ziurtatzen dugu eta bateraezintasunik ez dagoela ere bai, beraz, eratzat ematen dugu Korporazio hau hamazazpi zinegotzi hauekin osatuta,

MAIDER ALBERDI:

Iñaki Ostolaza Esnal,
M. Arritokieta Iribar Egaña,
Alejandro Oliden Antia,
Maider Alberdi Yeregui,
Asier Arakistain Alberdi,
M. Ignacia Bidasoro Arocena,
Jose María Azkue Castillo,
Maddi Aldalur Osa,
M. Aranzazu Gajate Telleria,
Oier Korta Esnal,
M. Cruz Alvarez Aparicio,
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta,
Cristina Vicente Iciar,
Gotzon Embil Unanue,
Iker Mardaras Arrieta,
Ainhoa Illarramendi Azkue,
Arritokieta Marañón Basarte,

GORKA URGOITI: Hauteskundeen araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 188 artikulua adierazitakoaren arabera hautetsiek zinegotzi karguari zin egingo diote, 1969 urteko 707 errege dekretu batek ezarritako formularen arabera, beraz, juramentuaren tramitea egingo dugu behin euskaraz esango dut formula eta banan-banan esango duzue bakoitzari iruditzen zaiona, juramentuaren inguruan,

Formula honako hau da:

Zin egiten duzu edo hitz ematen zuen kontzientzia eta ohoreagatik zinegotzi karguaren egin beharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituzula eta konstituzioa zaindu eta zaindu araziko estatuaren arau nagusi den aldetik?



Iñaki Ostolaza Esnal, erantzuna
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

M. Arritokieta Iribar Egaña:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, zin ematen dut

Alejandro Oviden Antia:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

Maidier Alberdi Yeregui:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

Asier Arakistain Alberdi:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

M. Ignacia Bidasoro Arocena:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, zin egiten dut

Jose María Azkue Castillo:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, zin egiten dut

Maddi Aldalur Osa:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

M. Aranzazu Gajate Telleria:
Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, hitz ematen dut

Oier Korta Esnal,
Legearen aginduz eta ezinbestean

M. Cruz Alvarez Aparicio,
Legearen aginduz eta ezinbestean

Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta,
Legearen aginduz eta ezinbestean

Cristina Vicente Iciar,
Legearen aginduz eta ezinbestean

Gotzon Embil Unanue,
Legearen aginduz eta ezinbestean

Iker Mardaras Arrieta,
Legearen aginduz eta ezinbestean

Ainhoa Illarramendi Azkue,
Legearen aginduz eta ezinbestean



Zumaia Udala

Arritokieta Marañón Basarte,
Sí, prometo

2019IAKU0007-A19/4546

Beraz, hautetsiak zinegotzi kargua bereganatu dute edo kargua hartu dute, hor
duzue eskuragarri batetik kontuen kontaketa eta inbentarioa eta orain tokatzen
da alkate izendapenaren tramitea,

Jarraian, Hauteskunde Araubidearen Lege organikoaren 196. Artikuluari jarraituz,
Alkatearen hautaketari ekin diote. Alkategaiak hiru zerrenda buruak:

- **ARRITOKIETA MARAÑÓN BASARTE** andrea. PSE-EE/P.S.O.E. alderdiko zerrendaburua dena.
- **OIER KORTA ESNAL**, jauna. EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua dena.
- **IÑAKI OSTOLAZA ESNAL** jauna, EH-BILDU alderdiko zerrendaburua dena.

Hautagaietako batek zinegotziek emandako botoen gehiengo osoa lortuz gero
alkate izendatuko da ezean hautagai gehiengo osorik aterako ez balu alkate
izendatuko da udalerrian gehien boto lortu dituen zerrendako zerrenda buruak,
eta enpate egongo balitz zozketa egingo litzateke,

Toki Erakunde antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren
erreglamenduak 102, 3 artikuluan bozketa sistema bezala ezkutuko bozketa
ezartzen duenez gero, bozketari ekingo diozue alkatea hautatzeko

ARRITXU MARAÑÓN: Sí, solo una cosa,
Yo no me presento como candidata, entonces vamos a cambiar papeles, pero
que no compute, aparece aquí? Como que....
Y nosotros no presentamos la candidatura a la alcaldía

Zinegotziek isilpeko bozketa sistema aukeratuta, bozkatzeari ekin diote
ondorengo emaitzarekin:

MAIDER ALBERDI: emandako botoak hamazazpi izan dira,
Baliozkoak: hamazazpi eta horietatik zuria bat
Emitza honakoa da:

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL jna. (9 boto)

OIER KORTA ESNAL, jna. (7 boto)

Boto Zuriak (1)



ALEX OLIDEN: Horretaz, ikusirik hamazazpi zinegotziek osatzen dutela korporazio hau eta Legezko gehiengo osoa bederatzi zinegotziarena izanik eta ikusirik Iñaki Ostolaza Esnalek bederatzi bozka lortu dituela, **Iñaki Ostolaza Esnal** jauna alkate izendatzen dut,

Orain hitza hartzeko ordua da eta

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Herri honek onartu gabeko legeak hala behartuta, zin egiten dut,

Eskerrik asko, hitza eskainiko diet edo emango dizuet zerrenda buru edo oposizioko buruei nahi baldin baduzue hartu, Arritxu hitza hartu nahi baldin baduzu, printzipioz ...

ARRITXU MARAÑON: Sólo para felicitarle, nada más,

IÑAKI OSTOLAZA, Eskerrik asko, Arritxu,
Oier, hitza hartu nahi baldin baduzu ...

OIER KORTA: Egun on guztioi,
Nire lehenengo hitzak Iñaki zoriontzeko dira, nola ez! Eta hauteskunde ondorengoan ere gobernu berri baten osaketa ekarri dute, duela lau urte izan genuen bezala,
Eskerrak eman nahi dizkiet bozka bitartez parte hartu duten Zumaiarrei eta nola ez gudan konfiantza jarri duten herritar guztiei.
Eskerrak ematea ere gustatuko litzaidake lau urte hauetan gobernu taldea osatu dugun kide guztioi, talde lanean denetarik izaten direlako, eskerra beharra izan dugunean talde bezala erantzun dugulako eta ongi etorria ere udalbatza osatuko dugun zinegotzi berriei eta eskertu ere bai nola ez, gure talde berria osatzeko pausoa eman duzuenoi.
Lanean gogor egin dugu legealdi honetan intentzitate handiz, helburu batekin Zumaia eta Zumaiarren bizitza hobetzeko konpromezu irmoarekin eta bide horretatik jarraituko dugu eta dagokigun lekutik datorren legealdian ere hor izango gara bidelagun,
Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu,
Eskerrik asko,

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Oier,

"Nik lehendabizi eskerrak eman nahi diet nitaz konfiantza ipini duzuen zinegotzioi, baita ere hona ekarri gaituzten 2627 Zumaiarren bozkei baina baita ere esan behar da Udal bat ez duela osatzen guri bozkatzen digutenak bakarrik baizik eta guri bozkatzen ez digutenak eta bozkatzen ez dutenak ere bai.



2019IAKU0007-A19/4546

Zumaia Udala Gure helburua esan behar du denekin eta denentzat lana egitea.

Lau urte hauetan erronka handiak edukiko ditugu hemen gauden denok, edukiko ditugu gauza asko egiteko, kultura munduan, kultura mailan, kirol mailan, hirigintza mailan, etxebizitza mailan, ikusten den Zumaia horretan lan asko edukiko denok, baina bereziki indarrak ipini beharko genituzke denok ikusten ez den Zumaia horretan, prekaritatean bizi diren Zumaiar horietan, hil bukaera ailegatzea kostatzen zaien Zumaiar horietan eta askotan neguan kalefakzioa ipintzeko dirurik ez duen Zumaiar horietan.

Denon artean esfortzu berezi bat ipini beharko genuke horietan,

Hori esan da nik hemendik bai omenalditxo bat edo gustatuko litzaidakeela egitea aipatu duzu zuk ere Oier, baina aurretiko legealdian egon zareten zinegotzi eta alkateari ere bai, baina baita ere urte guzti hauetan udaletxean lanean egon diren zinegotzi eta alkate guzti guztioi, hemen egotea konpromiso inportantea da eta herriagatik lana egitea konpromiso inportantea da eta nik uste dut balorean ipini behar den kontu bat dela.

Ez dut ahaztu nahi ezta ere, hemen gaudenon atzean hainbat jende lanean dabilen hainbat jende militantzian dagoen jendea, alderdi politikoan, herrigintzan, lan egiten duenak zerrendak osatzen, programak lantzen, mahai elektoraletan egoten, haientzat ere aitortza bat ere gustatuko litzaidake egitea, zeren, gu gaudenok hemen ere zuen lanaren ondorio ere bagara.

Eta bueno, hemen gaudenez lizentzi txiki bat eskatuko dizuet eta baita ere, ez dakit, omenalditxo txiki bat eta eskaintza txiki bat egin nahi nioke nire amari, Garbiñe Esnal Urangari, betidanik hala erakutsi didalako eta hala ikusi dudalako eginez, erakutsi dit zer den militantzia eta zer den konpromisoa, militantzia eta konpromisoa herriarekiko, militantzia eta konpromisoa Euskal Herriarekiko, eskerrik asko,

Eskerrik asko denoi"

Udal Korporazioaren eraketarako batzarraldia amaitutzat ematen da goizeko hamaika eta hogeit hamar minutu direnean, eta guzti hori ziurtatzen dut idazkari gisa.

ZUMAIA, 2019ko ekainaren 15ean

O.E.
ALKATEA.-

IDAZKARIA.-